

#GAZTEKLUBA IDEIAK 2020rako DEIALDIA

GAZTEKLUBA IDEIAK aisialdi osasungarriko ekimenak/ proiektuak hautatzeko eta gauzatzeko deialdia da. Jarduera horien hartzaileak 15 eta 17 urte bitarteko gazteak izango dira.

Lehenengoa: deialdiaren helburuak

- Gazteekin "aisiaren kultura osasungarria" eraikitzea.
- GazteKLUBAren udal programazioa osatzeko gazteen parte-hartzea sustatzea.
- Gazteen artean ekimena, sormena, antolatze gaitasuna eta talde-lana sustatzea.

Bigarrena: zein ekimen edo proiektu bilatzen ari gara?

Aisialdian gazteek dituzten interesei lotutako ekimenak bilatzen ari gara. Artearen barruan jorratu daitezkeen gaiak: plastikoak, ikusizkoak, ikus-entzunezkoak, eszenikoak, musika, dantza, moda, kirola, etab.

Ekimenen/proiektuen betekizunak:

- 15-17 urteko gazteek sustatu eta gauzatutakoak. Proiektua gutxienez hiru gazteko talde batek burutu behar izango du. Taldea, gehienbat, 15 eta 17 urte bitarteko neska-mutilek osatuko dute, baina 14 eta 18 urte bitarteko taldekideren batek parte hartzea onartuko da.
- Bilbon, espazio irekietan edo ekipamendu komunitarioetan garatzea, 12 eta 17 urte bitarteko neska-mutilek parte hartzeko aukera izan dezaten.
- 2020ko Aste Santuko oporraldietan (apirilak 6, 7, 8, 14, 15, 16, 17 eta 18) eta udakoetan (ekainaren 22tik 30era) edo 2020ko ekainaren 30a baino lehenagoko asteburuetan egitea.

Hirugarrena: nori dago zuzenduta deialdia?

Proiektuak honela aurkeztu beharko dira:

- Bilboko Bigarren Hezkuntzako eta Hasierako Lanbide Prestakuntzako Ikastetxeak. Proiektu buruak diren ikasleek, gutxienez, irakasle baten laguntza eta babesa izan beharko dituzte.
- Bilbon kokatutako Gazte Elkartek edo Hezkuntzarako Astialdiko Taldeak. Proiektu buruak diren neska-mutilek, gutxienez, aisialdi-taldeko kide heldu baten laguntza eta babesa izan beharko dituzte.
- Bilboko Gaztegunek kudeatzen dituzten erakundeak. Proiektu buruak diren neska-mutilek hezitzailearen laguntza eta babesa izan beharko dituzte.

Laugarrena: nola babestuko zaituztegu?

Gehienez 5 ekimen/proiektu hautatuko dira.

Hautatutako ekimen/proiektu bakoitzak honako laguntza hauek izango ditu:

- Hautatutako ekimen bakoitzak 2.000 eurorainoko aurrekontua izango du. Gastuak GazteKLUBA Programatik ordainduko dira zuzenean.
- Hautatutako ekimenen/proiektuen sustatzaileek egindakoaren jarraipena egiteko saioak izango dituzte, GazteKLUBA Programako profesionalek dinamizatuta, hautatutako ideiak definitzen eta gauzatzen laguntzeko:

- Taldeko saio bat, martxoaren lehenengo hamabostaldian hautatutako talde guztiekin.
- Banakako saioak hautatutako talde bakoitzarekin. Aukeratutako talde bakoitzarekin adostuko dira datak.
- Ekimenak Bilbao Gazte webgunearen eta sare sozialen bidez zabaltzeko laguntza.
- Gazteria eta Kirol Sailaren jarraipena, proposatutako jarduera burutzeari begira, erabiltzeko moduan eta egokiak diren udal ekipamenduak eskatzeko.

Bosgarrena: nola eta noiz aurkez dezakezu zure proiektua?

Izena emateko inprimakia betez, www.bilbaogazte.bilbao.net webgunean eskuragarria.

Ekimena/proiektua nola aurkeztu jakiteko bideo tutoriala dago bilbaogazte webgunean.

Eskabideak aurkezteko epea 2020ko urtarrilaren 13tik otsailaren 21era bitartekoa izango da.

Eskaerak gazteklubabilbao@bilbao.eus helbidera bidali behar dira, izena emateko inprimakia erantsita.

Seigarrena: baloratzeko eta hautatzeko irizpideak

Aurkeztutako ekimenak hautatzerakoan, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Sormena eta originaltasuna.
- Ekimenen iraunaldia.
- Gazteek jardueran ahalik eta parte-hartze handiena izatea.
- Ekimena hartzaileren artean zabaltzeko plana.
- Jardueraren edukiaren nahiz helburuen egokitasuna.

Gazteria eta Kirol Sailak 2020ko martxoaren 4an aukeratuko ditu ideiak eta www.bilbaogazte.bilbao.net webgunean argitaratuko dira.

Zazpigarrena: lehiakideen eta irabazleen betebeharrak

- Lehiaketan parte hartzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdiaren oinarriak onartzea.
- Ekimena diseinatzearen, garatzearen eta gauzatzearen erantzukizuna sustatzaileena izango da.
- Ekimena edo proiektua erakusteko argazki eta bideoetan agertzen direnen irudia erabiltzeko baimena eskatu.
- Proiektua gauzatu ondoren, saridunek memoria bat aurkeztu beharko dute Gazteria eta Kirol Sailean.
- Lehiaketan izena emateak berekin dakar memoria, argazkiak eta bideoak zabaltzeko eskubideak lagatzea, Bilboko Udalak erabili ditzan, bere webguneetan zein sare sozialetan. Halaber, ideiak, sariak eta programa osoa zabaltzeko interesgarritzat jotzen duen beste edozein bitarteko baliatu ahal izango du.

GAZTERIA ETA KIROL SAILA. GAZTEKLUBA PROGRAMA

Informazioa

94-4204233 (8:30-14:00)

gazteklubabilbao@bilbao.eus